

Iruña Okako natura ondareaz gozatzeko 15 ibilbide proposatzen ditu gida berri batek

QR kodeek aukera ematen dute track-ak deskargatzeko gailu mugikorretan

Iruña Okako Udalaren ekimena da, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean

Gasteiz, 2020ko uztailaren 30a.- Gidaliburu berri batek 15 ibilaldi proposatzen ditu Iruña Okako udalerrira osatzen duten bost herrien ondare naturala eta kulturala ezagutzeko eta haietaz gozatzeko: Mandaita, Olabarri, Langraiz, Billoda eta Tresponde. Ibilbideak deskarga daitezke herri bakoitzean dauden informazio paneletan kokatutako QR kodeen bidez, paperezko liburuxkan eta www.irunadeoca.com web orrian.

Ibilbide gida hori Iruña Okako Udalaren ekimena da, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean.

Cristina González Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko foru diputatuak eta Miguel Angel Montes Iruña Okako alkateak prentsaurrekoan aurkeztu dute gaur gida berria, eta azpimarratu dute proposatutako ibilbideek benetako altxor naturalak ezagutzeko aukera ematen dutela, hala nola ehun urteko haritz eta arteak, baso ezkutuak, edertasun handiko ermitak eta txokoak. Gonzálezek eta Montesek ondare horretaz gozatzera hurbiltzeko deia egin diete arabarrei.

"Arabar askok hurbileko turismoa egingo dugu uda honetan, eta ibilbideen gidoliburu hau tresna ezin hobea da naturan eta kulturaren aberatsa den Arabako zati bat deskubritzeko. Ibilbide horiek Iruña Okako bost herriak ezagutzeko eta bertako baliabide turistiko eta gastronomikoez gozatzeko aukera ematen digute", adierazi du Cristina Gonzálezek.

Prensa Oharra Nota de Prensa

Bestalde, Miguel Angel Montes Iruña Okako alkateak Badaia mendilerroaren potentziala azpimarratu du, "ingurumenaren erreferente eta kirol eta aisialdi jardueretarako agertoki ezin hobe delako. Hiru ibilbide proposatzen ditugu udalerriko herri bakoitzetik, hain hurbil dagoen eta ez guztiz ezaguna den ingurune honetaz gozatzeko. Proposamen hori osatzen da, besteak beste, gure kirol instalazioekin, Santa Katalinako Lorategi Botanikoarekin, ibilbide berdearekin, Zadorra inguruarekin edo gure ostalaritza eskaintzarekin".

Publiko ororentzat

Ibilbideak denok egiteko modukoak dira: batetik, ia desnibelik gabeko ibilbide errazak, familian egiteko aproposak; eta, bestetik, hainbat orduko, distantzia eta 500 metrotik gorako desnibelak dituzten ibilbide handinahiagoak. Gidak hiru ibilbide proposatzen ditu Iruña Okako bost herrietako bakoitzetik –Mandaita, Olabbarri, Langraiz Oka, Billoda eta Tresponde–, guztira 15 ibilbide egiteko.

Liburuxkak ibilbide bakoitzaren oinarritzko informazioa eskaintzen du, deskribapen labur batekin, distantzia eta desnibel metatuarekin, baita irudi adierazgarriak ere. Ibilbide bakoitzak, gainera, QR kode bat darama ibilbidea deskargatzeko telefono mugikor eta tabletetan, eta ibilbideari modu eroso eta seguruan jarraitu ahal izateko horrelako gailuen bidez (ibilbideak ez daude balizatuta ingurunean zero inpaktua lortzeko).

Iruña Okako Udala aste honetan informazio panel bana jartzen ari da udalerria osatzen duen herrietan, ibilbide bakoitzaren oinarritzko datuekin eta lehen aipatutako QR kodeekin. Ibilbideen track-ak gaurtik bertatik ere deskarga daitezke udalaren web orrian: www.irunadeoca.com.